

PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	BENTADES IKASTETXEA				Código: 014777				
ARLOA / IRAKASGAIA	GAZTELANIA							DATA	2022-2023
MAILA	LH 1	x	LH 2	x					

1	ARLOAREN GUTXIENEN HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA
<p>1- Modu bateko edo besteko ahozko diskurtsoak ulertzea eta interpretatzea, jarrera kritiko batekin, ulermen hori komunikazio egoera berriei aplikatzeko.</p> <p>2-Ahozko hizkuntza egokitasunez, koherentziaz eta zuzentasunez erabiltzea, errespetuko zein jarrera egoki bat hartuz, komunikazio ororen ezaugarri desberdinak zein hizkuntzaren alderdi normatiboak kontutan hartuz, komunikazio-premia guztiak behar bezala betetzeko.</p> <p>3- Eleaniztasun eta kultural aniztasuna ezagutzea eta ulertzea, oinarrizko ezagutza soziolinguistikoak izanik, jarrera baiezkor bat garatzeko eleaniztasunaren aurrean, jakinda kultural ondare bat dala.</p> <p>4-Hizkuntzen erabileraz hausnartu, giza eta kultural testuinguru desberdinen aurrean baliabide eraginkorrak hartzeko, hizkuntza estereotipoak saihesteko, iritzi eta mota desberdinetako aurreritziak uste direnak batez ere.</p> <p>5- Ikasketa prozesuei buruz hausnarketa egin, beste hizkuntzetan hartutako komunikazio ezagutzak eta baliabideak trasferitu ahal izateko, ikaskuntzan autonomia gara dadin, norberaren segurtasun jarrera aurrerakorra izanik.</p>	

2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA 1.MAILA
	<ul style="list-style-type: none"> ● Oinarrizko hiztegia: agurrak, baimena eskatzea... ● Irudien deskribapena ahoz. ● Istorioak kontatzea. ● Pelikulak: protagonista nagusiak identifikatu eta ahoz azaldu. ● Hitz-jokoak. ● Abestiak, txistek, igarkizunak. ● Ipuinak



2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA 2.MAILA		
	1.ebaluazioa	2. ebaluazioa	3. ebaluazioa
	<ul style="list-style-type: none"> Alfabetoa Ca.co, cu, que, qui. Za, zo, zu, ce, ci. Ja je, ji, jo, ju, ge, gi Ga, go, gu, gue, gui. Hitz- jokoak. 	<ul style="list-style-type: none"> Hiztegia Artikulua. Izenak (nombres propios y comunes) Adjektiboak Pelikulak: protagonista nagusiak, hasiera korapiloa eta amaiera bereiztu. 	<ul style="list-style-type: none"> Singularra eta plurala Generoa (masculino, femenino). Silabak Aumentativos, diminutivos Olerkiak, asmakizunak, ahok orapiloak, abestiak. Ikusitako pelikulen ahozko laburpenak.

3	EBALUAZIO- IRIZPIDEAK ETA KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK
	<p>EBALUAZIO IRIZPIDEAK</p> <p>Ea entzute-helburuaren xedeko informazioak antzematen eta bereganatzen dituen.</p> <p>Ea ulertzen duen diskriminazioa adierazten duten esapide arruntenen zentzua.</p> <p>Ea ikus-entzunezko eta informazio eta komunikazio teknologiak laguntza moduan erabiltzen dituen ahozko aurkezpenetan.</p> <p>Ea gela barruan ikaskuntza eta giza harremanetarako bideratutako ahozko elkarrekintzetan era egoki eta gogotsu batean parte hartzen duen, jarrera laguntzaile bat agertuz.</p> <p>Ea naturaltasunez parte hartzen duen, bere iritzi pertsonala adieraziz.</p> <p>Ea bere parte hartzearen galderak erantzuten dituen.</p> <p>Ea bere ikaskideen parte hartzeari buruzko galderak eta iritziak ematen dituen.</p> <p>Ea bere ikaskideen parte hartzea errespetatzen duen.</p>



Ea hitz egiteko txandak errespetatzean dituen eta ea edukazio arauak erabiltzen dituen.

Ea adierazmena, iritzi truke eta erabakiak hartzeko bideratuta dauden talde solasaldietan parte hartzen duen

Ea mota desberdinetako ikus-entzunezko laburpenak ahoz egiten dituen eta ea hauetako idea nagusiak identifikatzen dituen.

Ea ideia edo hautatutako informazioaren ahozko laburpenak era egoki eta bateratuan egiten dituen, aldeztatik aurretik emandako jarraibideak jarraituz.

KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK:

Ebaluazioa jarria izango da. Erabiliko diren kalifikazio irizpideak honako hauek izango dira:

Prozedurak eta jarrera: % 40

Ulermena: % 30

Ahozko adierazmena: % 30